

Bidaiarien sarrerak % 7 eta gualdiak % 10 gehitu dira 2004ko uztailean

Atzeritik datozen bidaiarien sarrerak % 3 igo dira; eta % 10, Estatutik datozenenak.

2004ko uztailean, 175.155 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan. Aurreko urtearen aldean, 11.000 sarreratik gorako gehikuntza izan da, hau da, % 7koa. Eustatek landutako datuak dira horiek guztiak. Hiru lurralde historikoetan gehitu dira bidaiarien sarrerak: Bizkaian (% 19), Araban (% 2) eta Gipuzkoan (% 1), 2003ko uztaileko datuen aldean.

Estatutik datozen bidaiarien sarrerak % 10 igo dira; atzeritik datozen bidaiarien sarrerak, berriz, % 3 ugaritu dira. Hala Estatuko bidaiariak nola atzerrikoak gehitu egin dira Bizkaian (% 16 eta % 23, hurrenez hurren) eta Araban (% 1 eta % 5, hurrenez hurren); Gipuzkoan, oster, ugaritu egin dira Estatuko bidaiariak (% 8) eta urritu atzerrikoak (% -11).

Estatutik datozen bidaiarien artean, gehitu egin dira Kataluniatik, Andaluziatik, Valentziako Erkidegotik, Galiziatik eta Kanarietatik datozenak. Eta urritu egin dira, batez ere, Madrildik eta Euskal AEtik beretik etorriak. Atzerrikoen artean, ugaritu egin dira Frantziakoak, Erresuma Batukoak, Italiakoak, Belgikakoak eta Irlandakoak, besteak beste; gutxitu egin dira, ordea, AEB-Kanadetakoak, Portugalgoak, Suediakoak eta Japoniakoak.

Gaualdiak, 2004ko uztailean, 340.108 izan dira, aurreko urteko uztailean baino % 10 gehiago, hots, 32.000 gaualdi gehiago. Euskal AEko hiru lurraldeetan urte arteko bilakaera positiboa izan dute gaualdiek: % 12 hazi dira Bizkaian; % 11 Gipuzkoan; eta % 7 Araban.

Batez besteko egonaldia luzatu egin da uztailean, Euskal AE osoan; izan ere, 1,88 egunekoa izatetik 1,94 egunekoa izatera pasa da (% +3). Indize hori handitu egin da Gipuzkoan (% 10) eta Araban (% 5), eta txikitu Bizkaian (% -6), urte arteko kopurutan. Plazen betetze-mailak % 6 egin du gora: iazko uztailean % 52,01 zen; eta joan berri den uztailean, aldiz, % 55,26. Gela betetze-maila ere handitu egin da, % 5 Euskal AEko guztizkoan, eta, horrenbestez, % 59,31 izatetik % 62,08 izatera pasa da.

NEKAZALTURISMOA

Gehitu egin dira bidaiarien sarrerak (% 12) eta gaualdiak (% 17)

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 10.699 bidaiari-sarrera zenbatu dira joan den uztailean, aurreko urteko hil berean baino % 12 gehiago: % 5 ugaritu dira

Bizkaian, % 11 Araban, eta % 9 Gipuzkoan. Estatutik datozen bisitariak % 11 gehitu dira Euskal AEn, hiru lurraldeetan ere ugarituta: Bizkaian % 19, Gipuzkoan % 6 eta Araban % 13 gehitu dira. Atzerrikoak % 20 izan dira Euskal AEko guztizkoan, haien kopurua hazi egin baita Gipuzkoan (% 37) eta Bizkaian (% 7), eta pixka bat jaitsi Araban (% -2).

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan egindako gaualdiak 35.069 izan dira uztailen, 2004ko hil berean baino % 17 gehiago. Urte arteko hazkunde-tasa positiboak izan dira hiru lurraldeetan ere: Bizkaian % 34 gehitu da, Gipuzkoan % 10 eta Araban % 6.

Batez besteko egonaldia, bidaiariko, duela urtebete 3,14 egunekoa izatetik azken uztail honetan 3,28koa izatera igaro da. Izan ere, handitu egin da Bizkaian (% 14) eta Gipuzkoan (% 1) eta txikitu Araban (% -5).

Plazen betetze-maila % 10 hazi da Euskal AEko guztizkoan. Lurraldeka, handitu egin da Bizkaian (% 33) eta Gipuzkoan (% 7), eta txikitu Araban (% -13).

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945 017 506. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

1. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	07/2004	%	07/2003	%	Δ%	07/2004	%	07/2003	%	Δ%	07/2004	%	07/2003	%	Δ%	07/2004	%	07/2003	%	Δ%
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	340.108	100	307.870	100	10	48.361	100	45.335	100	7	123.261	100	110.480	100	12	168.486	100	152.055	100	11
Estatukoak	225.068	66	198.762	65	13	36.533	76	34.202	75	7	77.860	63	70.210	64	11	110.675	66	94.350	62	17
Atzerrikoak	115.040	34	109.108	35	5	11.828	24	11.133	25	6	45.401	37	40.270	36	13	57.811	34	57.705	38	0
Hiriburua	207.574	61	195.512	64	6	34.962	72	32.063	71	9	82.768	67	73.508	67	13	89.844	53	89.941	59	0
Kostaldea	52.501	15	42.298	14	24	-	-	-	-	-	17.752	14	14.998	14	18	34.749	21	27.300	18	27
Barnealdea	80.033	24	70.060	23	14	13.399	28	13.272	29	1	22.741	18	21.974	20	3	43.893	26	34.814	23	26
BIDAIARIEN SARRERAK	175.155	100	163.337	100	7	26.823	100	26.374	100	2	69.829	100	58.860	100	19	78.503	100	78.103	100	1
Estatukoak	115.679	66	105.316	64	10	19.361	72	19.241	73	1	45.066	65	38.723	66	16	51.252	65	47.352	61	8
Atzerrikoak	59.476	34	58.021	36	3	7.462	28	7.133	27	5	24.763	35	20.137	34	23	27.251	35	30.751	39	-11
Hiriburua	107.824	62	98.592	60	9	18.124	68	16.960	64	7	48.069	69	38.694	66	24	41.631	53	42.938	55	-3
Kostaldea	24.508	14	22.896	14	7	-	-	-	-	-	9.718	14	8.391	14	16	14.790	19	14.505	19	2
Barnealdea	42.823	24	41.849	26	2	8.699	32	9.414	36	-8	12.042	17	11.775	20	2	22.082	28	20.660	26	7
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,94		1,88		3	1,80		1,72		5	1,77		1,88		-6	2,15		1,95		10
BETETZE-MAILA PLAZAKA	55,26		52,01		6	49,38		46,07		7	46,50		45,71		2	66,73		60,38		11
Hiriburua	56,64		55,50		2	51,62		47,44		9	48,87		47,50		3	69,43		69,23		0
Kostaldea	66,10		57,16		16	-		-		-	54,07		53,40		1	74,58		59,46		25
Barnealdea	47,20		42,29		12	44,38		43,07		3	36,17		37,35		-3	57,37		45,80		25
BETETZE-MAILA GELAKA	62,08		59,31		5	57,83		56,26		3	53,90		54,08		0	73,38		65,98		11
Hiriburua	63,45		63,18		0	62,37		59,94		4	55,93		56,44		-1	76,16		74,46		2
Kostaldea	71,45		61,31		17	-		-		-	60,47		62,12		-3	77,59		60,85		28
Barnealdea	54,70		49,28		11	45,71		46,34		-1	44,81		43,02		4	66,29		55,06		20
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	35.069	100	30.025	100	17	4.315	100	4.068	100	6	12.083	100	9.037	100	34	18.671	100	16.920	100	10
Estatukoak	28.420	81	25.276	84	12	3.926	91	3.804	94	3	9.263	77	6.933	77	34	15.231	82	14.539	86	5
Atzerrikoak	6.649	19	4.749	16	40	389	9	264	6	47	2.820	23	2.104	23	34	3.440	18	2.381	14	44
BIDAIARIEN SARRERAK	10.699	100	9.552	100	12	1.531	100	1.376	100	11	3.546	100	3.036	100	17	5.622	100	5.140	100	9
Estatukoak	9.082	85	8.204	86	11	1.411	92	1.253	91	13	2.900	82	2.431	80	19	4.771	85	4.520	88	6
Atzerrikoak	1.617	15	1.348	14	20	120	8	123	9	-2	646	18	605	20	7	851	15	620	12	37
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	3,28		3,14		4	2,82		2,96		-5	3,41		2,98		14	3,32		3,29		1
BETETZE-MAILA PLAZAKA	45,76		41,50		10	25,97		29,96		-13	51,29		38,56		33	51,22		47,88		7
BETETZE-MAILA GELAKA	48,62		43,61		11	29,18		29,20		0	53,72		41,89		28	53,11		50,13		6

Iturria: EUSTAT